

INDUSTRIA POLITIKA LANGILE KLASEAREN ZERBITZURA

Diagnostiko eta proposamen integrala
ikuspegi ekosozialetik

Laburpen exekutiboa

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

**MANU
ROBLES
ARANGIZ
FUNDAZIOA**



MANU ROBLES-ARANGIZ
FUNDAZIOA

Azterketa Bulegoak egina

@mrafundazioa

www.mrafundazioa.eus

Bilbo. 2026ko ekaina

Aurkibidea

1. Sarrera	1
2. Zergatik behar dugu beste industria politika bat?	1
2.1. Industria ez da beste sektore bat gehiago.....	1
2.2. Industria politikaren itzulera: zergatik orain?	2
2.3. Nolako industria politika proposatzen dugu?	2
2.4. Trantsizio ekologikoa: beharrezkoa, baina ez edozein modutan	3
2.5. Langileak erdigunean	3
3. Munduko eta Europako testuingurua: tentsio geopolitikoak eta Europako krisia	4
3.1. Berrogei urteko desregulazioa eta finantzarizazioa	4
3.2. XXI. mendea: krisien segida	4
3.3. Mundua berrantolatzen ari da: eta Europak zer egiten du?	5
4. Hego Euskal Herriko diagnostikoa	6
4.1. Hazten den ekonomia, baina ez lehen bezala.....	6
4.2. Industrializatutako lurraldea gara oraindik, baina industriak pisua galdu du.....	6
4.3. Soldatek ez dute aurrera egiten: aberastasuna leku aldatzen ari da	7
4.4. Inbertsioa ez da behar den tokira iristen.....	7
4.5. Produktibitatea hobetzen ari da, baina motel	7
4.6. Kanpoarekiko mendeko ekonomia	8
4.7. Industria hondakinak: gero eta arazo handiagoa.....	8
5. Zer egin da orain arte? Industria politikaren balantzea.....	9
5.1. Europar Batasuna.....	9
5.2. Espainiako Estatua: plan asko, eraldaketa gutxi	9
5.3. Hego Euskal Herria: erakunde arkitektura trinkoa, baina eraldaketa errealik gabe	10
5.4. Guztiak partekatzen dutena: eredia ez da aldatu	11

6. Beste eredu baterako proposamenak	12
6.1. Gobernantza: nork erabakitzen du?	12
6.2. Finantzaketa: nork jartzen du dirua eta zein baldintzetan?.....	13
6.3. Lege esparrua: joko arauak aldatu.....	14
6.4. Lana eta prestakuntza: pertsonak erdigunean	15
6.5. Baliabideak, lurraldea eta burujabetza: hemen ekoiztu, hemen erabaki	16
7. Zer sektore lehenetsi, eraldatu edo baztertu.....	19
7.1. Gizarte erreproduktzioarako kateak	19
7.2. Trantsizio ekologikorako kateak: aldatu energia ekoizpena eta mugikortasuna	20
7.3. Gaitasun teknologikorako kateak: kanpoan egiten duguna hemen egiten jakin	21
7.4. Murriztu beharreko sektoreak	22
8. Ondorioak	23
8.1. Diagnostikoak dioena	23
8.2. Proposamenak bideratzen dituzten hiru printzipioak	23
8.3. Bide bat, ez jauzi bat	24

1. SARRERA

Dokumentu honek ELAko Azterketa Bulegoak egindako *Industria politika langile klasearen zerbitzura: Diagnostiko eta proposamen integrala ikuspegi ekosozialetik* txostena laburbiltzen du. Txosten horrek Hego Euskal Herriko industria-politikaren azterketa zehatza eta zabala barne hartzen du eta eskuragarri dago www.ela.eus edo www.mrfundazioa.eus webguneetan.

Azterketaren abiapuntua galdera sinple baina funtsezko bat da: zertarako balio du industriak, noren mesedetan jarduten du eta nork erabaki behar du zer eta nola ekoitzi? Ibilbidea, testuingurua eta datu ekonomikoak sakon aztertu ondoren, txostenak ondorioztatzen du industriak gizartearen gehiengoaren beharrei erantzun behar diela, ez enpresa eta akziodun gutxi batzuen interesei. Horretarako, aldaketa sakonak bideratzeko hainbat proposamen egiten ditu, eredu ekonomiko bidezkoagoa, demokratikoagoa eta planetaren muga biosifikoein bateragarria dena.

Txostena lau atal nagusitan banatzen da. Lehenik, industria politika aktibo eta eraldatzaile baten beharra eta oinarriak azaltzen ditu. Bigarrenik, Hego Euskal Herriko egoera ekonomiko eta industrialaren diagnostikoa egiten du, mundu mailako zein Europako joeren testuinguruan. Hirugarrenik, Europako Batasunean, Espainiako Estatuan eta gure lurraldean orain arte garatutako industria politiken balantze kritikoa egiten du. Eta laugarrenik, proposamen zehatzak aurkezten ditu, bai ikuspegi orokorretik bai sektoreka.

2. ZERGATIK BEHAR DUGU BESTE INDUSTRIA POLITIKA BAT?

Industria politikaz hitz egiten dugunean, botere politikoaren honako erabakiez ari gara: zer ekoizten den, nola, nork eta non. Hamarkada luzez boteredunen erantzuna honako hau izan da: merkatuak erabaki dezala. Estatuaren egitekoa enpresa pribatuentzat negozioak egiteko baldintzak sortzea zen, gehiegi esku hartu gabe. Gaur egun, ordea, ikuspegi hori krisian dago.

2.1. Industria ez da beste sektore bat gehiago

Industriak ongizate kolektiborako bereziki garrantzitsuak diren ezaugarriak ditu. Hemen ekoizten duguna ez diegu beste herrialde batzuei erosi behar; horrek ahalbideratzen digu gure ahultasuna murriztea nazioarteko merkataritzaren gorabeheren edo atzerriko potentzien presioen aurrean. Gainera, industriak beste sektore batzuk ere mugitzen ditu: fabrika batek hornitzaileak, garraioa, zerbitzu teknikoak eta prestakuntza behar ditu. Ondo dabilenean, tokiko ekonomia osoa biziberritzen du, eta eragin handia du produktibitatean, hau da, ditugun bitartekoekin ekoizteko gure gaitasunean, ondoren horren araberakoa izango baita banaketa ekoizpena gizartean.

Hala ere, industria ez da aparteko mundu bat. Industria, gizarte batek behar dituenak ekoizteko lan antolatu gisa ulertuta, honakoaren ardatza ere bada: erreprodukzio sozialarena, hots, gizarte gisa eusteko beharrezkoa dugunarena. Horregatik, txanpon beraren bi aurpegiak dira bai fabrikako lana bai zaintza lanak. Zainduko duten pertsonarik gabe ez dago ekoizteko prest dagoen langilerik, eta alderantziz. Horregatik, Azterketa Bulegoak kokatzen ditu zaintzak industriaren pare eta politika ekonomikoaren baitan.

Horrez gain, beste hainbat arrazoi daude industria politika sendo baten alde egiteko: industriak turismoak bezalako sektoreek baino enplegu egonkorragoa eskaintzen du; lurraldearen oreka eta tokiko ekonomien bizitasuna indartzen ditu; eta berrikuntzarako eta trantsizio ekologikorako funtsezkoa da, karbono gutxiko ekonomiak behar dituen ondasunak garatzeko eta ekoizteko gaitasuna duelako.

Horregatik guztiagatik, edozein eraldaketa sozioekonomikoren erdigunean egon behar du demokratikoki planifikatutako industria politika ausart batek. Ez da kontua industria edonola defendatzea, baizik eta zer ekoitzi, nola ekoitzi eta norentzat birpentsatzea, irizpide sozial, ekologiko eta lurraldekoekin, eta zaintzak oinarrizko ardatz gisa hartuta.

2.2. Industria politikaren itzulera: zergatik orain?

1980ko eta 1990eko hamarkadetan, ia baztertu egin zen ekonomian estatuak aktiboki esku hartu behar zuela zioen ideia. Eredu nagusiak merkatu irekiak, araudi gutxi, kapitalen zirkulazio askea eta esku hartze publiko minimoa defendatzen zituen. Industriak bere kabuz biziraun behar zuen, edo bestela desagertu.

Eredu horrek porrot egin du. Soldata baxuko herrialdeetara egindako deslokalizazio masiboek milioika langile lanik gabe utzi zituzten Europan eta Ipar Amerikan; 2020ko pandemiaren garaian ikusi zen Europak Asiaren menpekotasun handia zuela maskarak edo arnasketa aparatuak egiteko; gerrak eta tentsio geopolitikoek gasa, erdieroaleak eta lehengai estrategikoak hornitzeko kateak eten dituzte; eta Txinaren gorakadak hankaz gora jarri du merkatu librea beti irtenbiderik onena denaren errelatoa.

Gaur egun, eskuinetik zein ezkerretik, denek hitz egiten dute industria politikaz. Beraz, eztabaida ez da estatuak esku hartu behar duen ala ez, baizik eta nola eta noren alde.

Mariana Mazzucatorek ekarpena eta gure kritika

Eztabaida honetan eragin handiena izan duen ekonomialarietako bat da Mariana Mazzucato. Bere ustez, estatuak ez luke merkatuaren akatsak zuzentzera mugatu behar; merkatuak sortzeko eragile aktiboa izan behar du, lehentasun kolektiboak ezarriz eta inbertsioa helburu jakinetara bideratuz: trantsizio ekologikoa, osasun publikoa edo burujabetza teknologikoa. Era berean, Estatu ekonomia-erantzako oztopo baino, motorra litzateke gertatutako aurrerapauso teknologiko esaguratsuenetan: internet, GPS edo smartphone gailuak, neurri handi batean, inbertsio publikoari esker lortu dira, ez ekimen pribatuaren eskutik.

Ikuspegi horren zati handi batekin bat gatoz, baina urrunago joan behar dela uste dugu: langile klaseak erabaki ekonomikoetan benetako boterea izan behar du.

2.3. Nolako industria politika proposatzen dugu?

Ez dugu soilik gaur egungo estatuaren esku hartzea handitzea eskatzen. Industria politika eraldatzaile bat proposatzen dugu, hiru printzipio nagusitan oinarritua:

- Enpresa estrategikoak publikoak, kooperatiboak edo sozialak izatea, ez pribatuak.
- Langileek erabaki ekonomikoetan benetako eta erabakigarria den ahotsa izatea.
- Ekoizpena pertsonen eta planetaren beharretara bideratzea, ez etekinak handitzera.

Horretarako, industria politikak aldi berean hainbat eremutan jardun behar du: finantzaketan, legerian, lan baldintzetan, baliabideen sarbidean, azpiegituretan, prestakuntzan eta inbertsioen kontrol demokratikoan.

2.4. Trantsizio ekologikoa: beharrezkoa, baina ez edozein modutan

Krisi klimatikoa ez da etorkizuneko mehatxu bat: hemen dago jada. Bero gehiago, lehorte gehiago, uholde gehiago eta behartutako migrazio gehiago ekartzen ditu. Egoera horri aurre egiteko, ekoizpen eta kontsumo eredua errotik aldatu behar da. Baina eraldaketa hori egiteko bide guztiak ez dira berdinak, ezta justuak ere.

Alde batetik, 'Kapitalismo berdeak' dio orain arte bezala hazten jarrai daitekeela, petrolioia eguzki panelekin ordezkaturik, edota gasolinarekin dabilzan autoak elektrikoak izanda. Ez gatoz bat ikuspegi horrekin, ez dituelako zalantza jartzen krisiaren eragile izandako botere harremanak, eta ahaztu egiten duelako produktu berri horiek ekoizteko ezinbestean behar direla lehengaiak eta energia, eta hondakinak sortzen direla.

Bestalde, badira ekonomia azkar eta nabarmen murriztea proposatzen dutenak. Ikuspegi horrek badu zentzurik, baina planifikazio demokratiko eta bidezkorik gabe, murrizketa horren ondorioak langileen eta zaugarrienen bizkar izango da.

Horregatik, "murrizketa material demokratikoa" proposatzen dugu: materialen eta energiaren erabilera murriztea, baina modu planifikatuan, bidezkoan eta kolektiboki erabakian. Horrek esan nahi du ekoizpena bideratu behar dela jendeak behar duenera, boteresak eta aberastasuna banatu behar dela eta horrela, lan erreproduktiboa kokatu behar da ekonomiaren erdigunean.

2.5. Langileak erdigunean

Gure proposamenaren ideia nagusietako bat da honako hau da: bidezkoa izan nahi duen edozein industria politikak langileak erdigunean jarri behar ditu, eskubideak eta erabakitze ahalmena dituzten subjektu aktibo gisa.

Horrek hainbat ondorio ditu. Sektore batzuk murriztu edo desagerrarazi behar dira: armagintza, erregai fosilak edo distantzia luzeko turismo masiboa. Birmoldaketa horrek langileen diru sarrerak, prestakuntza eta erabakietan parte hartzea bermatu behar ditu.

Aldi berean, beste sektore batzuk indartu behar dira: energia berriztagarriak, eraikinen birgaitzea, agroekologia, garraio publikoa edo zaintzak. Jarduera horiek langileak behar dituzte, lurraldeari lotutakoak dira eta herritarren benetako beharrei erantzuten diete, industria bizitzaren erreproduktzio sistemaren baitan dagoelako.

3. MUNDUKO ETA EUROPAKO TESTUINGURUA: TENTSIO GEOPOLITIKOAK ETA EUROPAKO KRISIA

Hego Euskal Herriko egoera ekonomiko eta industrialia ulertzeko, testuinguru zabalagoari begiratu behar zaio.

3.1. Berrogei urteko desregulazioa eta finantzarizazioa

1980ko hamarkadatik aurrera, mendebaldeko herrialdeetako eredu ekonomiko nagusiak kapital finantzariora lehenetsi du langileen, sektore publikoaren eta ingurumenaren kaltetan.

Eredu horren ezaugarri nagusiak honakoak izan dira:

- Zerbitzu publikoen privatizazioa.
- Enpresa handiei eta errenta handiei zergak jaistea.
- Nazioarteko merkataritzaren liberalizazioa.
- Finantzaren desregulazioa.
- Sindikatuen eta negozioazio kolektiboaren ahultzea.

Ondorioz, desberdintasuna izugarri handitu da: aberatsak are aberatsagoak dira, langileek erosahalmen txikiagoa dute eta inbertsio produktiboaren ordez espekulazio finantzariora eta inmobiliarioa indartu dira.

Gainera, eredu horrek planeta suntsitzen du, baliabide naturalen erauzketa eta erregai fosilen erabilera etengabe handitzen dituelako.

3.2. XXI. mendea: krisien segida

Aurreko mendea katean izandako krisien garaia izan da, sistemaren gabezia sakonak agerian utzi dituenak:

- 2000ko puntocom krisia: Interneten bueltan lehertu zen burbuila, eta erakutsi zuen, ekoizpen oinarriak izan gabe ere, kapital finantzieroa gai dela katiboak puzteko.
- 2008ko Atzeraldi Handia: 30eko hamarkadaz geroztik izandako krisirik handiena, higiezinaren espekulazioarengatik eta finantza sistemaren gardentasun faltagatik gertatutakoa. Gobernuak bankoak erreskatatu zituzten diru publikoarekin eta zerbitzu publikoak murriztu zituzten.
- 2020ko COVID-19aren pandemia: ekoizpen kateen ahultasuna geratu zen agerian. Europa ez zen gai oinarriko materiala ekoizteko, Txinaren zein beste herrialdeen menpeko zen.
- 2022ko Ukrainako gerra: elikagaien eta energiaren prezioak garestitu ziren. Begi bistan geratu zen baliabide estrategikoekiko dependentziak kotu sozial eta politikoak dituztela.

Krisi bakoitzaren ondoren, gobernuak larrialdiko neurriak hartu dituzte, baina arazoaren erroak ukitu gabe. Ondorioz, desberdintasunak handitu dira eta benetako enplegua eta ondasun erabilgarriak sortzen dituen inbertsio produktiboa ez da nahikoa izan.

Datu garrantzitsu bat: soldatak gainbeheran dira mundu osoan

Gutxienez 80ko hamarkadatik, soldata bidez langileei bideratutako aberastasuna gutxitu egin da ia herrialde guztietan. Kapitalaren zatia (errentak, irabaziak...), ordea, handitu. Horrek esan nahi du ekonomiaren hazkundeak ez diela denoi berdin eragiten: pastela handitzen doa, baina zatia txikiagoa da gehiengoarentzat. Hori ere ari da gertatzen Hego Euskal Herrian.

3.3. Mundua berrantolatzen ari da eta Europak zer?

AEBen nagusitasuna gainbeheran dago eta Txina munduko industria potentzia nagusi bihurtu da. Munduaren Hegoaldeko herrialdeek autonomia gehiago eskatzen dute eta Mendebaldeko erakunde finantziarioekiko dependentzia txikitzea. BRICS gisa deitutako herrialdeek (Brasil, Errusia, India, Txina, Hego Afrika eta abar) eraiki dituzte alternatibak dolarra oinarri duten sistemen aurrean.

Europa, testuinguru honetan, maniobra-marjina galdu du. Segurtasun militarren arloan Estatu Batuekiko duen mendekotasunak, energiarekiko duen zaurgarritasunak (Ukrainako gerraren ondoren gasaren krisiarekin agerian geratu zen bezala) eta potentzia handien aurrean autonomiaz jarduteko duen ezintasunak munduko geopolitika berriaren barruan mendeko posizio batean kokatzen dute.

Hori ikusita, Europar Batasunak berrindustrializazio eta trantsizio ekologikorako plan handiak iragarri ditu (Europako Green Deal, Next Generation, Lehiakortasunaren Iparrorratza...), baina praktikan logika bera mantentzen dute: arriskuak publikoak dira eta irabaziak pribatuak. Enpresa handiak dira onuradunak, eta bigarren mailan geratzen dira langileak eta enpresa txikiak, besteak beste.

Gainera, EBk armagintzaren aldeko apustu handia egin du Defentsarako Estrategia Industrialarekin, milaka milioi euroekin. Gure ustez, diru publikoa trantsizio ekologikora, zaintzetara eta bizi baldintzak hobetzera bideratu behar da, ez berrarmatzera.

4. HEGO EUSKAL HERRIKO DIAGNOSTIKOA

Hego Euskal Herria Europako batez bestekoarekin alderatuta, industria oinarri sendoa duen herrialdea dela irudi luke, baina egiturazko desoreka handiak eta zaugarritasun nabarmenak ditu, oso gutxitan azaleratzen direnak.

4.1. Hazten den ekonomia, baina ez lehen bezala

2024an Hego Euskal Herriko BPGa (bertan sortzen denaren balioa) 118.231 milioi eurokoa izan zen. Prezioen igoera kontuan hartu gabe, 2000. urtekoa baino bikoitza da. Baina salneurriei begiratuta, hazkunde erreala apalagoa izan da: Nafarroan %45,6koa eta EAEn %39,1ekoa. Kopuru txikiak dira aurreko hamarkadekin alderatuta.

Hazkunde hori, gainera, ez da uniformea izan. 2008ra arte hedapen luze bat izan zen; ondoren, Atzeraldian Handiarekin beherakada bortitza etorri zen, 2013ra arte luzatu zena; gero susperraldi gradual bat, 2020ko pandemiaren ondoriozko kolapsoa eta beste susperraldi bat izan ziren. Bestalde, manufaktura-industriak geldialdi bereziki deigarria izan du, bereziki EAEn kasuan; izan ere, 2024ko bere ekoizpen errearen maila ia bera da 2007-2008koa baino, duela ia hogeitun urtekoa. Teknologia gehiago, automatizazio handiagoa eta ikerketa eta garapenean inbertsio handiagoa egon arren, industria-ekoizpen errealak ez du aurrera egiten.

4.2. Industrializatutako lurraldea gara oraindik, baina industriak pisua galdu du

Aipatutako geldialdiak geldialdi, Nafarroak eta EAEn jarraitzen dute izaten Europako lurralde industrializatuenetako batzuk. 2024Ean, Nafarroan industriak aberastasunaren %31,2 sortzen zuen eta EAEn %23,3. Europako batez bestekoa txikiagoa da.

Indargune bat da hori, baina ahultzen ari dena, industriaren pisua %32tik %26ra jaitsi baita 2000 eta 2024 urteen artean. Zerbitzuak, bestalde, handitzen ari dira, eta jada ekonomiaren bi herenak dira. Batzuk balio erantsi handiko zerbitzuak dira (ingenieritza, diseinua, berrikuntza...), baina asko oso balio txikikoak dira, lan baldintza prekarioekin.

Bestetik, industriari berari begiratuta, beste arazo bat ikusten dugu: maila ertain-handi eta ertain-txikiko teknologian espezializatu gara, baina presentzia txikia dugu goi mailakoetan, benetan balio erantsia sortzen dutenetan eta nazioarteko ekoizpen kateetan erabakitze gaitasuna bermatzen dutenetan.

Enpleguari dagokionez, industriak ere pisu garrantzitsua mantentzen du bai Nafarroan (%27) bai EAEn (%20); hori argi ikusten da Europar Batasuneko batez bestekoarekin alderatuta, %17,5ean kokatzen baita. Hala ere, zerbitzuen sektorearen nagusitasuna argia da, enpleguaren %72 baino gehiago biltzen baitu. Gainera, 2000 eta 2024 arteko bilakaerak enpleguaren tertziarizazio-prozesu jarraitua erakusten du, 2008ko krisiaren ondoren areagotu zena, industriak, eraikuntzak eta nekazaritzak pisua galdu baitute. Bestalde, azpimarratzekoa da emakumeen parte-hartze txikia eta gizonen kontzentrazio handia industria astuneko sektoreetan; horrek genero-desberdintasunak areagotzen ditu.

4.3. Soldatek ez dute aurrera egiten: aberastasuna leku aldatzen ari da

Gure analisiaren daturik deigarrienetako bat soldaten eta enpresa-errenten bilakaera da. Termino errealetan (inflazioa kontuan hartuta), Hego Euskal Herriko langile bakoitzeko soldatak ia ez du hazkunderik izan mende honetan. 2000. urtean, soldatapeko bakoitzeko ordainsaria 43.850 eurokoa zen (2024ko prezioetan); 2024an, berriz, 44.814 eurora iritsi zen. Ia bi hamarkada eta erdian %2,2ko hazkundera baino ez da izan.

Aldi berean, enpresen mozkinak handitu egin dira. 230.000 langile gehiago izan arren, aberastasunaren gero eta zati txikiagoa jasotzen dute. 2000. urtean, Hego Euskal Herriko BPGaren %49,8 ziren soldatak. 2024Ean, %47,5. Langileen aberastasunaren zatia txikiagoa da, beraz, eta gehiagoren artean banatu behar da.

Jabeen eta akziodunen esku geratzen den zatia, aldiz, handitu da urte horietan BPGari dagokionez: %38,4tik %42,8raino. Igoera horrek esan nahi du 16.600 milioi euro gehiago direla, hau da, hazkunde erreala termino absolutoetan %56,1ekoa izan da.

Zenbatekoa da aldea? Ia 12.000 eurokoa pertsonako eta urteko

Pertsona bakoitzak 2000. urteko BPGaren zati proportzionalari eutsi izan balio, soldatapeko bakoitzak 11.617 euro gehiago jasoko lituzke urtero. Alegia, hilero 970 euro gehiago.

4.4. Inbertsioa ez da behar den tokira iristen

Ekonomia dinamikoa izan dadin, beharrezkoa da makinaria erostea, instalazioak eraikitzea, teknologia garatzea edo langileak formatzea. Azterketak agerian utzi du, ordea, inbertsioek behera egin dutela 2008. urteaz geroztik. 2009. urtetik, inbertsioek ez dute BPGaren %20ko langa gaintitzen, lehen ez bezala.

Diru horren zati esanguratsu bat doa dibidenduetara edo espekulazio finantzierora zein beste enpresak eskuratzerara. Finantzen logika gailentzen da inbertsio produktiboari. Horrek onurak dakartza kapitalen jabeen epe laburrean, baina kaltegarria da epe luzean industria sarearentzat eta kalitatezko enpleguarentzat.

4.5. Produktibitatea hobetzen ari da, baina motel

Produktibitateak neurtzen du ondasun eta zerbitzuak ekoizteko erabiltzen diren baliabideen eraginkortasuna, eta funtsezko adierazlea da errendimendu ekonomikoa eta soldataren bilakaera aztertzeke. Hego Euskal Herrian, industriak ekonomiaren batez bestekoa baino produktibitate handiagoak du, bai enplegatutako pertsonako, bai lan egindako ordu bakoitzeko, eta bereziki manufaktura industria nabarmentzen da.

Europako testuinguruan, Hego Euskal Herriak Europar Batasuneko batez bestekoaren inguruko mailak erakusten ditu, eta Frantzia edo Finlandia bezalako ekonomietara hurbiltzen da, balio erantsi handiagoko industria-sare bati esker. Gainera, 2000. urteaz geroztik izan duen bilakaerari dagokionez, bai Nafarroak bai EAEk produktibitatearen hazkunde nabarmen handiagoa izan dute mendearen hasieratik Europako ekonomia nagusiek erakutsitakoa baino. Enplegatutako pertsonako produktibitatearen urteko hazkundera %0,78koa izan da, eta lan egindako orduko produktibitatearena %1,07koa.

4.6. Kanpoarekiko mendeko ekonomia

Hego Euskal Herriak asko esportatzen du, baina oinarrizko produktu eta gai askotan kanpo menpekotasun handia du. Hona hemen adibide batzuk:

- EAEn erabiltzen diren materialen %75 kanpotik dator.
- Inportazioen %49 erregai fosilak dira.
- Eguzki plakak, elektronika edo auto elektrikoak egiteko beharrezko mineral gehienak ia %100ean inportatzen dira.
- Petroleoaren mundu mailako erauzketak goia jo zuen 2018. urtean, eta agsoleoak, garraioan eta nekazaritzan gakoa denak, 2016. urtean. Menpekotasuna dugun produktuak gutxitzen joango direla esan nahi du horrek.

Menpekotasun hori ez da soilik arazo ekonomiko bat; burujabetza arazo bat ere bada. Energia eta lehengaien inguruko kontrola duenak du boterea. 2022. urteko gasaren krisiak ikusarazi zuen hori.

Nazioarteko ekoizpen kateei begiratuta, Hego Euskal Herriko posizioa kezkarria da: erdibideko postuetan gaude batez ere (beste batzuk muntatzen dituzten pieza ekoizten ditugu), eta gure lurraldetik kanpoko enpresek hartzen dituzte erabaki estrategikoak (zer diseinatu, zer saldu, salneurria...).

4.7. Industria hondakinak: gero eta arazo handiagoa

Industria hondakinen kopurua handia da. 2019an, 6,67 milioi tona hondakin industrial sortu ziren EAEn, Nafarroan 2021ean 830.000 tona. Bada, birziklatze sistemak ez dira aski: 2026an, euskal ekonomiak erabilitako materialen %7 soilik birziklatu zen.

Zaldibarko zaborteziaren tragediak, non milaka tona hondakinek ingurumen-hondamendi bat eragin zuten eta bi langile hil ziren, argi erakusten du arazo hau konpondu gabe dagoela oraindik ere. Hartzen ari diren irtenbideek (erraustegi gehiago eraikitzea, esaterako) ez dute oinarrizko arazoa konpontzen: segurtasunez kudeatzeko gai garen baino hondakin gehiago sortzen jarraitzen dugu. Dokumentuan apustu argia egiten dugu hondakinen sorrera jatorrian murriztearen alde, gehiago konpondu eta berreraikitzearen alde, eta materialen zikloak lurraldearen barruan ixtearen alde.

5. ZER EGIN DA ORAIN ARTE? INDUSTRIA POLITIKAREN BALANTZEA

Azken berrogei urteetan aplikatu diren industria-politikak aztertu dira: Europako mailan, Espainiako Estatuan eta Hego Euskal Herrian. Ondorio nagusia da planak, tresnak eta erakundeak pilatu direla, baina oinarritzko eredua ez dela aldatu: esku-hartze publikoak, batez ere, negozio pribatuak errazteko balio izan du, ez ekonomia gehiengoaren mesedetan eraldatzeko.

5.1. Europar Batasuna

Hamarkada askotan, EBren politika ekonomikoa ideia sinple batean oinarritu zen: Europako merkatu bateratuak, bere lau askatasunekin (pertsonek, ondasunen, zerbitzuen eta kapitalen zirkulazio askea), oparotasuna sortuko zuen guztiontzat. Estatuak ez zuen gehiegi oztopatu behar; arbitratzea zuen zeregina, ez erabakitzea.

2008ko krisia eredu hori zalantzan jartzen hasi zen, eta pandemiak behin betiko lurperatu zuen. Harrezkero, EBk inbertsio programa handiak abiarazi ditu: Berreskuratze Plana (750.000 milioi euro), ikerketarako Horizonte Europa, trantsizio ekologikoko funtsak... Kopuru izugarriak dira. Baina, praktikan, funts horiek arriskuak sozializatzea eta etekinak privatizatzea bilatzen duen logika batekin funtzionatzen dute: diru publikoak inbertsioek huts ez egitea bermatzen du, baina arrakasta badute, irabaziak enpresa pribatuetara joaten dira. Eredu honen programa izarrak, InvestEUk, ez du zuzenean inbertitzen: aseguru gisa jokatzen du, inbertitzaile pribatuek bestela hartuko ez lituzketen arriskuak har ditzaten.

Era berean, dokumentuan kritikatzeko dugu funts horiek batez ere indartsuagoak ziren eskualde eta enpresei egiten dietela mesede, desberdintasunak murriztu beharrean sendotuz. Eta salatzen dugu EBk defentsa eta armamentuko gastua handitzeko egin berri duen apustuak, armak egiteko milaka milioi euro gehiagorekin, trantsizio ekologikora eta biztanleriaren bizi baldintzak hobetzera joan beharko luketen baliabideak desbideratzea dakarrela.

5.2. Espainiako Estatuak: plan asko, eraldaketa gutxi

Espainiako industria politikak antzeko bidea hartu du. Laurogeiko eta laurogeita hamarreko hamarkadetan industria publikoaren zati handi bat desegin ondoren (Telefónica, Repsol, Endesa eta Estatuak beste enpresa batzuen privatizazioa), ondoz ondoko gobernuek industria planak abiarazi dituzte, eta, oro har, hiru ezaugarri komun izan dituzte:

- Enpresen lehiakortasuna erraztera jo dute (zerga pizgarriak, digitalizazioa, esportaziorako laguntza), oinarritzko eredua zalantzan jarri gabe.
- Batez ere korporazio handiei egin diete mesede, produkzio ehunaren gehiengoa osatzen duten enpresa txiki eta ertainei arreta gutxi eskainiz.
- Justizia sozialaren, genero berdintasunaren eta iraunkortasun ekologikoaren gaiak alde batera utzi dituzte edo oso azalek jorratu dituzte.

Industriaren eta Autonomia Estrategikoaren Lege Proiektuak (2024) aurrerapen batzuk dakartza, hala nola enpresa bat deslokalizatuz gero laguntza publikoak berreskuratze aukera, edo enpresa estrategikoetan esku hartzeko tresna batzuk, baina ez da nahikoa: zerga salbuespenen mende dago kasu gehiegitani (gehien irabazten duenari mesede egiten dio), ez du kontrol demokratikorako mekanismo sendorik, eta apenas aipatzen du genero ikuspegia.

5.3. Hego Euskal Herria: erakunde arkitektura trinkoa, baina eraldaketa errealik gabe

EAE: tresna asko, baina eredu berdina

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan estatuko industria politika garatuenetakoak sortu dira. 80ko hamarkadaz geroztik, hainbar erakunde sortu dira (SPRI, parke teknologikoak, garapen agentziak), finantza tresnak (prestamoak, abalak, arrisku kapitalen fondoak), berrikuntza programak eta sektore klusterren sareak. Ikerketarako eta garapenerako inbertsioak Europako handienetakoak dira. Horrek guztiak lagundu du industriari oinarri trinkoa eskaintzen.

Hala ere, eredu bera errepikatzen dela ondorioztatu dugu: diru publikoarekin bultzatzen da enpresa bat handitzea eta arrakastatsu denean, gero inbertitzaile pribatuen esku geratzen da gizarteak jarritakoa berreskuratu gabe. Gamesa, Euskaltel edo ITP dira adibideetako batzuk.

Gainera, falta dira enpresa krisien aurrean alerta goiztiarreko eta esku hartzeko mekanismoak. Enpresa batek zailtasunak dituenean, erakundearen erantzuna berandu iristen da eta ez da nahikoa. Fagor Etxetresna Elektrikoak (Europako kooperatiba handienetako bat, 2013an porrot egin zuena), CEL papera fabrika edo La Naval ontziola dira horietako adibide batzuk; euskal erakundeak parte izanagatik ere, ez zuen esku hartu garaiz milaka lanpostu suntsitzea saihesteko.

2025eko ekainean aurkeztutako Euskadi 2030 - Industria Planak ia 4.000 milioi euroko inbertsio publikoa aurreikusten du 2028ra arte. Elementu berri batzuk sartzen diren arren, eredu bera errepikatzen da: diru publikoak inbertsio pribatuen arriskuak bermatzen ditu, baldintza sozial eta ekologiko sendorik gabe, kontrol demokratikorako mekanismo errealik gabe eta enpresa onuradunei enpleguari eusteko eta lurraldean beren jarduera errotzeko eskatu gabe.

Nafarroa: aurrerapenak ikuspegian, mugak praktikan

Nafarroari dagokionez, berezko berezitasun batzuk dituen industria politika garatu du. Industria planek eta espezializazio adimenduneko estrategiek (S3 eta S4) automobilgintza, nekazaritzako elikadura eta energia berriztagarriak bezalako sektoreen aldeko apustua egin dute. Zehazki, 2021eko S4ak aurrerapen positiboa dakarren balio kateen ikuspegia sartu zuen: sektore isolatuak babestu beharrean, elkarren artean nola erlazionatzen diren eta puntu ahulenak non dauden ulertzen saiatzen da. Hala ere, gauzatze praktikoa enpresa handienetan kontzentratzen da oraindik, eta ez da iristen ekoizpen sare osora.

5.4. Guztiek partekatzen dutena: eredia ez da aldatu

Maila instituzionalen arteko desberdintasunetatik harago, dokumentuak guztietan errepikatzen diren ezaugarri multzo bat identifikatzen du, eta horiek azaltzen dute zergatik, plan ugari egin eta baliabide asko inbertitu diren arren, eredu ekonomikoa ez den funtsean aldatu:

Industria-politikan errepikatzen den eredia

- Erabakiak teknikariek eta enpresariek hartzen dituzte, ez langileek ezta herritarrek ere.
- Diru publikoak inbertitzaile pribatuen arriskua murrizten du, baina etekinak pribatuak dira.
- Ez dago baldintza argirik laguntzak jasotzen dituzten enpresentzat: deslokalizatu, itxi edo dibidenduak banatu ditzakete jasotakoa itzuli gabe.
- Genero-ikuspegia ez dago presente edo guztiz sinbolikoa da: emakumeak zuzendaritza-karguetan txertatzeaz hitz egiten da, baina ez zaintza-lana eta feminizatutako enpleguak balioesteaz, ezta lan-ibilbideak baldintzatzen dituen kontziliazioaren karga desorekatuaz ere.
- Enpresa bat krisian sartzen denean, erantzuna berandu iristen da eta lehentasuna akziodunak salbatzea izaten da, ez enplegua.
- Jasangarritasun ekologikoa adierazitako helburua da, baina enpresak hori errespetatzera behartuko dituzten mekanismo loteslerik gabe.

6. BESTE EREDU BATERAKO PROPOSAMENAK

Diagnostikoa argia da: egungo ereduak ez du funtzionatzen biztanleriaren gehiengoarentzat. Dokumentuan garatzen ditugun proposamenak uste sendo batean oinarritzen dira: gauzak beste modu batera egitea posible da. Horretarako, elkar osatzen duten bi fronte nagusitan jardutea proposatzen dugu. Lehenik, gobernantzari, finantzaketari, araudiari, lanari eta lurraldeari lotutako neurri orokorrak, ekonomia osoaren joko-arauak aldatzen dituztenak. Bigarrenik, politika sektorial bat, zeinak erabakitzen duen zer jarduera sustatu behar diren, zein eraldatu eta zein utzi behar diren pixkanaka.

Proposamenak elkar indartzen duten bi motatan banatzen dira. Proposamen erreformistek lan-baldintzak hobetzea, botere sindikala handitzea eta egungo sistemaren barruan enpresa-botereari mugak jartzea dute helburu. Proposamen eraldatzaileek, berriz, egitura sakonagoak aldatzea dute xede: nor den zeraren jabe, nork erabakitzen duen zer ekoizten den, eta sortutako aberastasuna nola banatzen den. Lehenengoen bigarrenengoentzako bidea irekitzen dute, eta trantsizio ekosozialaren parte dira.

6.1. Gobernantza: nork erabakitzen du?

Gaur egun erabaki ekonomiko handiak kapitalaren jabeek eta kudeatzaileek hartzen dituzte (zer ekoizten den, non, noiz itxiko den enpresa bat...). Eragiteko gaitasun murrizta dute langileek, sindikatuek, udalek eta herritarrek oro har.

Nork agintzen du ekonomian

Horregatik, proposamen nagusia da langileek eta tokiko komunitateek benetako parte hartzea izatea.

Horretarako:

- Eskualde bakoitzean Tokiko Kontseilu Ekonomikoak sortzea, non langileek, gizarte erakundeek, ekoizleek eta udalerriek lurraldeko lehentasun ekonomikoei buruz eztabaidatu eta erabakiko duten.
- Industria Partaidetzarako Euskal Erakundea sortzea, sektore publikoak partaidetza duen enpresak koordinatu eta ikuskatzeko, eta interes orokorraren zerbitzura daudela ziurtatzeko.
